



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaiko Ogasunak iruzur fiskaleko 467,1 milioi euro azaleratu ebazan igaz, aurreko urtean baino %2,8 gehiago

Bilbon, 2014ko martxoaren 20an.

2013an, Bizkaiko Foru Ogasunak 467,1 milioi euroko iruzur fiskala azaleratzea lortu eban, 713.101 jarduketaren bitartez. Kopuru hori Gizarte Ekintzako sailaren aurrekontuagaz dator bat, eta aurreko urtean, Ogasun Saila osatzen dabena “pertsona guztiek eta bakotzak” egindako ikuskapenen ondorioz azaleratutako dirua baino %2,8 gehiago da. Balantze hori José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak emon dau gaur, eta iruzur fiskalari buruz Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen aurrean urtero egiten dauen agerraldian, kopuru horren “%70 inguru” Aldundiko kutxetarako berreskuratu dala azpimarratu dau.

Kopuru horren barruan, aurkitutako iruzurraren parte handiena BEZ-aren kontrolean egindako jarduketaren bitartez lortu da, 217 milioi euro. Horren ostean Soziedadeen Zergea etorri da, 182,9 milioigaz, eta hirugarren lekuan PFEZ zergea, 56,3 milioigaz. Ogasuneko arduradun nagusiak bere berbaldi luzean azpimarratu dau, baita be, 2013an bere Sailak ustezko 16 delitu bideratu ebazala Fiskaltzara, eta 5 kondena-epai lortu ebazala. Jarduketa horreen bitartez azaleratutako 9,4 milioi euroetatik, Bizkaiko Ogasunak 1.083.991 euro kobrotea lortu dau.

Iruarrizagaren berbetan, kopuru horreek “oso garrantzitsuak” dira, eta “gitxi batzuen alkartasun faltaren” parte dira. Diputatuak adierazo dauenez, emaitza hori Ogasuneko beharginek egindako lanaren, eta “iges egiteko bide posiblei ateak jarteko, arriskutsutzat hartzen diran sektoreak antolatzeke eta erregulatzeke, eta iruzur boltsak hautemateke eta horreekaz amaitzeke pentsautako tresna informatikoak eta laneko arloak eta taldeak hobetzeke egiten dan etenbako” ahaleginaren ondorioa da. Diputatuak gogoratu dauenez, lan horri esker Bizkaiko Ogasunak 3.267 milioi euro azaleratzea lortu eban, eta ustezko “ehun delitu baino gehiago” bialdu ebazan Ministerio Fiskalera.

Bere agerraldian, Iruarrizagak, beste Tributu Administrazio batzuek informazioa lortzeke jarduketak “indartu eta hobetu izana” be azpimarratu dau. Horri jagokonez, Bizkaiko Ogasunak 73,5 milioi datu baino gehiago trukatu ditu beste ogasun batzuek, eta “hitzarmen barriak” sinatu ditu. Horreen artean, joan dan astelehenean Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Ogasunak sinatutakoa azpimarratu dau. Horri jagokonez, adierazo dau, “barrikuntza gisa, bakotxaren tributu datu baseen denpora errealeko komunikaziorako mekanismo teknikoak bideratuko dirala”, eta horri esker, informazioaren trukaketak “oraindino eta gehiago” hobetu ahal izango dirala. Arlo horretan emon beharreko “hurrengo pausua” hitzarmen bera Nafarroako Ogasunagaz sinatzea izango da. Aurton Estaduko Tributu Agentziagaz “hitzarmen barria” sinatzea aurreikusten dala azpimarratu dau.

Iruzur fiskalaren kontrako burrukaren balantzearen aurkezpenaz baliauta, Diputatuak “Guri Iruzurrik Ez” izena daroan gizartearen kontzientziaraziorako publizidade kanpaina aurkeztu dau. Esaldi horregaz “pertsona guztien eta bakotxaren esfortzua batu gura dogu, inork ez daian gizarte honen katea apurtu”, adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

“OSO DATU POSITIBOAK”

Orokorrean, iruzur fiskalaren kontrako lanak harrera ona jaso dau batzarretako taldeen artean. Eraitza “oso positiboa da, Bizkaiko Ogasuna gauzak ondo egiten ari dala esan gura dau”, onartu dau Gonzalo Zorrilla-Lequerica PP-ko batzordekideak, baina bat etorri da Iruarizagagak, “oraindino hobetzeko aukerea” dagoala esaterako orduan.

PSE taldea be pozik agertu da iruzur gehiago azaleratu dalako, eta azpimarratu dau oso garrantzitsua dala beste ogasun batzuekazu tributu datuak hobetzen jarraitzea, jarduera ekonomikoen arloan batez be –BEZ eta Soziedadeak– hor dagoalako iruzur “handiena”. Ganera, esan dau oso garrantzitsua dala “jasotako” iruzurra erakusten dauan behin betiko kopurua emotea, eta ez ehuneko bat –%70–, Iruarizagaren berbetan beste ogasun batzuetan egiten dan moduan.

Alexia Castelo batzordekide sozialistak kritikau egin dau epaien bitartez “azaleratutako 10 milioietatik 1 bakarrik “ berreskuratu izana. Diputatuak erantzun dau epaiak “irmoak” izan arte itxoin behar dala, “epaileek atzeratu eta luzatu ahal dituelako”, eta urteak igaro daitekezalako epaibidea itxi arte.

EH Bildu taldeak, bere aldetik, Bizkaiko lurraldeko Ogasuneko arduradunak animau ditu, generako foru ogasunakaz egin beharreko alkarlanagaz jarraitu daien, alkarren arteko loturea “denpora errealean” egin daiten. PSE-EE taldeak egin dauen moduan, kritikau egin dau Bizkaiko tributuen administrazioak iruzur fiskalaren kontrako burrukan berreskuratutako diruari buruzko datu ikugarriak emon ez izana.

Lorea Bilbao EAJ-PNV taldeko bozeroaleak adierazo dau "nasaitasuna emoten dauela Ogasun Sailak gai horretan erakutsi dauen inplikazio mailak". eta "bide onean gagozala" esan dau.

ZORRAK PARKATZEKO ERESPIDEAK

Ekonomia eta Ogasuneko batzordean bertan, Socialistas Vascos batzarretako taldeak eskatutako batzorderatze eskaerea gauzatu da, Diputatuak, “2009-2012 epealdian ezarritako tributu zehapenak parkatzeko” kontuan izan diran “erespideei” buruzko informazioa emon daian.

Diputatuaren berbetan, administrazio organuak zor bat parkatzeko orduan jarraitzen dituan erespideak, gehien bat gertakariaren “larritasuna” eta, horren ostean, arau hauslearen jokaerea eta tributu zorra ez ordaintzearen inguruko abaguneak dira. Iruarizagak, 2013ko abenduan EH Bilduri, talde horrek idatziz egindako itaunari erantzunez, emondako datuak gogoratu ditu. Lau ekitaldi fiskal horreetan, “128 milioi euroko balioa euki daben 35.000 zehapen egin dira”, eta horreetatik 5,6 milioi –%4– parkamenei jagokez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Hacienda de Bizkaia afloró el año pasado 467,1 millones de euros de fraude fiscal, un 2,8% más

En Bilbao, a 20 de marzo de 2014.

En el año 2013, la Hacienda foral de Bizkaia consiguió aflorar un fraude fiscal de 467,1 millones de euros a través de 713.101 actuaciones. Esta cifra, que coincide prácticamente con el presupuesto del departamento de Acción Social, supone un 2,8% más del dinero emergido con respecto al año anterior como consecuencia de las inspecciones realizadas por “todas y cada una de las personas” integrantes del departamento de Hacienda. Este balance ha sido ofrecido hoy por el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, quien ha destacado en su ya habitual comparecencia anual sobre el fraude fiscal en la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales, que “en torno al 70%” de este montante económico ha sido recuperado para las arcas forales.

De esta cuantía, la mayor parte del fraude descubierto procede de las actuaciones realizadas en el control del IVA con un total de 217 millones, seguido del Impuesto de Sociedades con 182,9 millones y, en tercer lugar, del IRPF con 56,3 millones. El máximo responsable de Hacienda ha destacado también en una larga intervención que, en 2013, su departamento remitió a la Fiscalía 16 presuntos delitos, consiguiendo 5 sentencias condenatorias. De los 9,4 millones de euros aflorados por estas actuaciones, el fisco vizcaíno ha logrado cobrar 1.083.991 euros.

A juicio de Iruarrizaga, estas cifras son “muy importantes”, y forman parte de la “insolidaridad de unos pocos”. El diputado ha subrayado que este resultado es fruto del trabajo realizado por el personal de Hacienda y de una labor “continua, de perfeccionamiento de las herramientas informáticas y de innovación en áreas y equipos de trabajo pensados para poner puertas a posibles vías de escape, ordenar y regular sectores considerados de riesgo, y detectar y acabar con bolsas de fraude”. Gracias a esta labor, el diputado ha recordado que en el periodo 2003-2013 la Hacienda de Bizkaia consiguió aflorar más de 3.267 millones de euros y remitió al Ministerio Fiscal un “centenar largo” de presuntos delitos.

En su comparecencia, Iruarrizaga ha destacado también la “potenciación y perfeccionamiento” de las actuaciones de obtención de información con otras Administraciones Tributarias. En este aspecto, la Hacienda vizcaína ha intercambiado más de 73,5 millones de datos con otras haciendas y ha suscrito “nuevos convenios”, entre los que ha destacado el firmado el pasado lunes entre las haciendas forales de Bizkaia, Araba y Gipuzkoa, del que, “como novedad, se arbitrarán unos mecanismos técnicos de comunicación en tiempo real de las bases de datos tributarias de cada una”, que permitirán incrementar “aún más” el intercambio de información. En este terreno, el “siguiente paso” será “formalizar” el mismo acuerdo con la hacienda navarra y durante este año, prevén suscribir un “nuevo convenio” con la Agencia Tributaria del Estado.

Aprovechando el balance en la lucha contra el fraude fiscal, el diputado ha presentado una campaña publicitaria de concienciación social con el lema “No nos defraudes”, una frase con la que “queremos unir el esfuerzo de todas y cada una de las personas para que nadie rompa la cadena de esta sociedad”, ha manifestado.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

DATOS “MUY POSITIVOS”

En líneas generales, la labor de lucha contra el fraude fiscal ha sido bien acogida entre los grupos junteros. El resultado es “muy positivo, significa que la Hacienda de Bizkaia está haciendo bien las cosas”, ha reconocido Gonzalo Zorrilla-Lequerica, apoderado del PP, quien ha coincidido con Iruarrizaga en que, sin embargo, “hay margen de mejora”.

También el PSE-EE se ha congratulado por el aumento del fraude aflorado, insistiendo en la importancia de mejorar la interconexión de los datos tributarios con otras haciendas, especialmente en actividades económicas –“IVA y Sociedades”- que es donde se produce “mayor” fraude, y en que se ofrezca una cifra definitiva con el fraude “ingresado” y no un porcentaje –el 70%- que, según Iruarrizaga, es lo habitual en otras haciendas.

La apoderada socialista Alexia Castelo ha criticado que sólo se haya recuperado “1 millón de los 10 aflorados” por sentencias judiciales, a lo que el diputado ha contestado que hay que esperar a que estas sentencias sean “firmes” puesto que los “jueces pueden aplazarlas” y pasar años hasta que el proceso judicial se cierra.

Por su parte, EH Bildu ha animado a los responsables de Hacienda del territorio vizcaíno a que sigan profundizando con el resto de haciendas forales en que la interconexión de datos se produzca en “tiempo real”. Al igual que el PSE-EE, han criticado el hecho de que la administración tributaria vizcaína no ofrezca datos tangibles del dinero recuperado en esta batalla contra el fraude fiscal.

La portavoz del PNV, Lorea Bilbao, ha dicho que "produce serenidad el grado de implicación que tiene el departamento de Hacienda en este asunto" y ha considerado que "estamos en el buen camino".

CRITERIOS PARA CONDONAR DEUDAS

En la misma comisión de Economía y Hacienda, se ha sustanciado una petición de comparecencia solicitada por el grupo juntero Socialistas Vascos a fin de que el diputado de Hacienda informara a los grupos junteros de los “criterios” que se han tenido en cuenta para la “condonación de las sanciones tributarias impuestas durante los años 2009-2012”.

Según Iruarrizaga, los criterios que sigue el órgano administrativo a la hora de condonar una deuda tienen en cuenta principalmente la “gravedad” del hecho y, en un segundo nivel, la conducta del infractor y las circunstancias que han rodeado el impago de la deuda tributaria. Iruarrizaga ha recordado los datos ofrecidos a EH Bildu en diciembre de 2013, en contestación a una pregunta por escrito de este grupo. Durante esos cuatro ejercicios fiscales, se produjeron “35.000 sanciones por valor de 128 millones de euros, de los cuales 5,6 millones –un 4%– corresponden a condonaciones.